



> Altsasuko gazteak, RTVEko debatean



NAIZ+

Kongresu espainolean talde propioa duten sei indarren arteko hauteskunde eztabaidan, Altsasuko gazteek bi guardia zibilekin eta haien bikotekideekin izandako borrokaldi baten ondoren bizi duten egoe-



raren berri eman zuen Gabriel Rufian diputatu katalanak, ondo kostata.

«Astakeria galanta da Altsasuko zazpi gazte, guardia zibil baten orkatila apurtuarengatik, duela hiru urte kartzelan

egotea». Horrela hitz egin zuen Gabriel Rufianek joan den astean RTVE telebista espainolak eman zuen hauteskunde debatean.

ERCko hautagaiak, horrela, Altsasuko taberna batean izandako borrokaldiaren ondoren gazteok bizi duten egoera mahai gainean jarri zuen, «birsorkuntza demokratikoaren» apunte gisa. Ez zitzaion samurra gertatu, ordea. Ion Lagardezabalek bere Twitter kontuan jasotako bideoan ikusten denez, Ciudadanos taldeko Ines Arrimadasek eta PPk Bartzelonatik Kongresurako hautagai aurkeztu duen Cayetana Alvarez de Toledok behin eta berriz moztu zuten Rufianen mintzaldia. Debatearen moderatzaile Xabier Fortesek politikari katalanaren alde atera behar izan zuen.

Halako batean hitz egiten utzi ziotenean, Rufianek Altsasuko gazteei egindako «astakeria», kataluniar lider independentistak kartzelatzea eta sanferminetako bortxaketaz akusatuta daudenek duten in-punitatea lotu zituen.



> Desgaitasuna dutenentzako aparkalekuen 450 argazki

Hiru hilabetez, *#okupasmotorizados* ekimenak Nafarroan desgaitasuna duten lagunen tzat erreserbatutako aparkalekuetan ageri diren 450 autorek beste horrenbeste argazki zabaldu ditu sare sozialen bidez, 125 lagun lankidetzarekin.

Ekimenaren sustatzailea esklerosi anizkoitza duen Juan Larreta da, eta kolaboratzaileen



aldetik jasotako laguntza eskertu du. «Ikaragarri gustatuko litzaziguke aparkatzeko txartelak ez izatea, edozein lekutara oinez joan, zenbait etxadi urrunago aparkatu eta pasieran iritsi ahal izatea, baina ezin dugu», gaineratu du. Horregatik, desgaitasuna dutenentzako txartelak zuzen erabili eta eta gizabidez jokatzeko eskatu du.



> Errenteriako lazo erraldoiek horiz tindatu dute Twitter

Errenteriako bizilagunek joan den astean Ciudadanos alderdiaren mitinari egindako “ongietorria” Twitterren agertu zen berehala. Irudi hori bereziki Katalunian txalotu zuten, eta herrialde horretako herri-
tar askok eskertu egin zuten Twitterren.

Kataluniar preso politikoen askatasuna aldarrikatzen duten hori koloreko lazo erraldoiak nagusi ziren Foru plaza-



ko etxe-aurreetan, laranja koloreko taldeari “ongietorria” egiteko. Albert Riverak hitz egin zuen markesinaren sa-
baian ere hori koloreko lazo bat zegoen. Lazoen irudia be-
rehala agertu zen Twitterren, baita milaka *like* eta ehunka birtxio jaso ere.

Argazkia batez ere Katalu-
nian txalotu zuten, eta hango herri-
tar askok Errenteriako kei-
nua eskertu zuten Twitterren.

> Liburutegi mugikor bat haurrei liburuak eramateko

Irakasle italiar erretiratu batek liburuak eskuratzerik ez duten haurrei “Bibliomotogurdia” he-
larazten die.

Izozki gurditxo bat balitz beza-
la, liburutegi mugikor horrek liburuak eramaten dizkie ira-
kurtzeko baliabiderik ez duten italiar haurrei. Haren gidaria Antonio De Cava da, Italiako hegoaldeko irakasle erretiratu eta irakurri zale amorratua.

Irakasle lana amaitu egin zi-
tzaion erretreta hartuta; hala ere, gorputz eta arima jarrai-



tzen du hezitzaile gisa, “Bi-
bliomotogurdia” bere ibilgai-
luak seinalatzen duen norabi-
dean. 700 liburu garraiatzeko diseinatu dago, liburuak es-
kuratzea batere erraza ez den italiar herrixketako haurrei doan eskaintzen dizkienak, hain zuzen.

2003an prestatu zuten ibil-
gailu horrek seinale akustiko bat du, bere iritsiera iragartze-
ko, eta irribarre artean eta go-
goz hartzen dute igarotzen den lekuetan.



> «Gora ETA militarra» oihuka Donostiako Alde Zaharrean

Mobilizazio batek Donostiako Alde Zaharreko kaleak zeharka-
tu zituen joan den asteartean. Manifestari-
ek “Gora ETA mili-
tarra” eta “Zuek faxistak zarete terroristak” leloak oihukatu zi-
tuzten, manifestazioa bertatik bertara zelatatzen zuten poli-
zien begiradapean.

Aste Santuaren ondoren Do-
nostiara iritsitako zenbait bisi-



tari ikaratu egin ziren hura ikusita. Hala ere, manifesta-
rien janzkera bitxi samarra zen, iragandako garai batekoa. Izan ere, mobilizazio hori Fernando Arambururen liburuan oinarritutako “Patria” telesai-
laren filmazioari zegokion.

Euskal Herriko beste zenbait lekutan ere filmatu dute tele-
saila, irudi bitxiak sortuz.